

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko otsailaren 17tik otsailaren 23rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/02/22

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko otsailaren 12koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira industriako produktu kimikoen eta drogeriako eta perfumeriako produktuen inportatzaile eta handizkarien sektorearen 2021eko, 2022ko eta 20123ko estatuko hitzarmen kolektiboko soldatak berraztertzeako akordioa eta 2023ko behin betiko soldata-taulak. **3428 xedapena- 3 or.**
- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko otsailaren 12ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta-zerbitzuen eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuen sektorearen (adinekoen egoitza pribatuak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua) estatu mailako VIII. hitzarmen kolektiboaren aldaketa. **3431 xedapena- 5 or.**
- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko otsailaren 12koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Auzitegi Nazionaleko Lan Arloko Salak emandako epai bat, dei-zentroen sektoreko Estatuko III. hitzarmen kolektiboari dagokiona. **3432 xedapena- 12 or.**

2024/02/23

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko otsailaren 12ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita biltegi handien sektoreko 2024ko hitzarmen kolektiboko soldatak berraztertzeako akordioa. **3524 xedapena- 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/02/17

- **ESPAINIAKO KONSTITUZIOA.** Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua aldaketa, 2024ko otsailaren 15koa. **3099 xedapena- 10 or.**

2024/02/21

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Gailu elektrikoak eta elektronikoak.** PJC/133/2024 Agindua, otsailaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita, berunaren eta merkurioaren erabilerari buruzko salbuespenei dagokienez, tresna elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren IV. eranskina. **3279 xedapena- 8 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Batxilergoa.** Ebazpena, 2024ko otsailaren 20koa, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2024ko otsailaren 11ko Ebazpena, Estatuko Hezkuntza Idazkaritzak eta Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak batera emana, zeinak egokitzen baitu Unibertsitatara sartzeko Batxilergoa, 2023-2024 ikasturterako, hauen beharretara eta egoerara: Estatutik kanpo dauden zentro espainiarrak, atzerriko hezkuntza-programak, nazioarteko programak, atzerriko hezkuntza-sistemetatik etorritako ikasleak eta urrutiko irakaskuntza. **3280 xedapena- 6 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/02/19

- **OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko otsailaren 9koa, Osasuneko sailburuarena, Zainketa Aringarrien Euskadiko Aholku Batzordea sortzekoa. **851 xedapena- 4 or.**

2024/02/21

- **LEHENDAKARITZA.** 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena. **901 xedapena- 54 or.**

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2024 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 6koa, balio erantsiaren gaineko zerga, elektrizitatearen gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzekoa. **902 xedapena- 6 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/02/20

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 60/2024 Foru Agindua, otsailaren 9koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren eta ondarearen gaineko zergaren kudeaketan aplikatzeko. **1032 xedapena- 1.092 or.**

2024/02/21

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Gasolindegien hitzarmen kolektiboaren 2024ko soldataren berrikuspena. **1110 xedapena- 6 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfnoa: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-maila: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUEN 2 ZK.KO MUTUA
HENAO, 26 - BILBO